



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/10/18

Bizkaiko Batzar nagusiek azkenengo urte bietan onetsi dituen Arauz besteko proposamenen "%70" bete dau daborduko Aldundiak

Aldundiak, Bizkaiko Batzarretan azkenengo urte bietan onetsi ziran arauz besteko proposamenen betete mailea jasoten dauen txostena aurkeztu dau gaur Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko bilkuran. Foru Gobernuak arrakastaz bete dau 2015eko irailaren 1etik 2017ko irailaren 1era Batzarretan onetsi diran “arauz besteko 89 proposamenen” artetik “%70”. Foru gobernua arrakastaz itxi ditu Batzarretako taldeen “62” ekimen, eta “27” gauzatze maila “aurreatuan” dagoz, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak emon dituan datuek erakusten dabenez.

Egia esateko, Batzar Nagusiek azken urte bietan arauz besteko 128 proposamen onetsi ditue, baina 89 (%70) dira Foru Gobernuak aurrera daroan beharrean eragin zuzena daukien ekimenak, Arautegia aplikauz gaur goizean Batzarretan aurkeztu dan txostenak adierazoten dauenez. Batzordeetan edo osokoan onetsi diran gainerako aginduak –39– beste administrazio edo erakunde publiko batzuei zuzenduta egon dira.

Bengoetxeak Foru Gobernuan zuzenean eragina eukien proposamenen egoerearen barri emon deutse batzarretako taldeei. Sailei jagokenez, Euskera eta Kultura Saila izan da Batzarretako ekimen gehien jaso ditua. 29 proposamenek, gobernuko ekintzaren bat aurrera eramateko eskaria egiten eutsien Lorea Bilbaok zuzendutako sailari. Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio eta Ekonomiaren Garapen eta Lurralde sailek, euren aldetik, 20 eta 18 agindu jaso ditue, hurrenez hurren.

Hamar ekimenetik behera geratu dira Foru Aldundiko gainerako sailak: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturalak 6 jaso ditu; Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailak beste 6; Gizarte Ekintzak eta Herri Administrazio sailak 4 bakotzak; eta Ogasun eta Finantza sailak arauz besteko proposamen 2 baino ez ditu jaso. (IKUSI EDUKIA ERANTSITAKO TXOSTENEAN)

Foru Gobernua eusten daben talde biek –EAJ-PNV eta PSE-EE- azpimarratu dabenez, Batzarretako arautegi barriak, Batzarretatik sortzen diran ekimenen betete mailaren inguruko “kontuak aurkeztera” behartzen dau Aldundia. Hori ez da “inoiz” egin X. Legealdi hau heldu arte, Juan Otermin sozialistak adierazo dauenez. María Presa jeltzalearen eretxiz, arauz besteko proposamenak betetea beharrezkoa ez dan arren, “bidezkoa da kontuan izatea”. Bere taldea “oso pozik” dago Batzarretatik sortu diran erabagien aurrean Aldundiak erakutsi dauen “errespetua” ikusita.

Oposiziotik, Arturo Aldecoak (Mistoa), aurkeztutako txostenaren, legealdiko bigarrenaren, “erabilgarritasuna” azpimarratu dau, eta Jesús Isasik (PP) dokumentuak gauza bi erakusten dituala esan dau: oposizinoak “behar egiten” dauela, eta Gobernu taldea Batzarretako taldeen beharren “atzetik doala”.

Taldeek esku hartzeko izan daben txandan, Neskutz Rodríguez Podemos taldeko bozeroaleak, beste erakunde batzuetara zuzendutako arauz besteko proposamenen egungo egoerearen barri



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

jasotea bota dau faltan, eta Onintze Oleaga EH Bilduko ordezkariak Batzarrek egindako beharra kritikau dau, “kea” onetsi dalako. Bere berbetan, Bizkaiko gizarteak “konpromisoak” behar ditu “gizarte arloko politiketan, fiskaltasunean eta industria politikan”.

ZUZENeko KULTUR IKUSKIZUNEN BEZ-AREN JEITSIERAREN ONESPENA

Ostean, Osokoak Aldundiaren irailaren 26ko 4/2017 Foru Dekretu Arauemoilea onetsi dau, EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren aldeko botoakaz eta EH Bilduren eta Podemos Bizkaiairen abstentzinoagaz. Dekretu horren bitartez Balio Erantsiaren Zergaren 7/1994 Foru Araua aldatzen da. Lurralde komunean gertatzen dan moduan, zuzeneko kultur ikuskizunei eta graduautako betaurrekoen armazoiei eta beste elementu batzuei apliketan jaken zergaren tasea murrizten da, ehuneko 10ekoa izan daiten, aldaketa horreek jasoten ebazan Estaduko Aurrekontu Orokorren bagilaren 27ko 3/2017 Legean xedatzen dan moduan.

POBREZIA TASAK MURRIZTEKO KONPROMISOA

Beste alde batetik, Osokoak aho batez onetsi dau Podemos Bizkaia, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen artean adostutako mozinoa, Aldundiak Bizkaian pobreziako egoeran dagozan pertsonen gaineko “diagnostiko espezifikoa” egin daian.

Jeltzaleen eta sozialisten zuzenketa-eskea jaso dauen bigarren puntuan, Batzar Nagusiek eskaria egin deusie Aldundiari, parte hartze aktiboa euki daian Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Inklusino Planean, eta baita “Aldundiak eskumenak dituan arloetako ekintza guztiak martxan jarri daizan, horreek aurrera eroateko beharrezkoa dan aurrekontu hornidurea mahai gainean jarritz”.

Bukatzeko, Bizkaiko Batzarrak eskaria egin deutso Eusko Jaurlaritzari, Inklusino Planean 14 urtetik beherakoak bizi diran eta pobreziako egoeran dagozan etxeakaz erlasionautako estrategia berezia sartu daian, eta Aldundiari, bertatik sortzen diran komunitade mailako ekintzak eta esku-hartzeak martxan jarri daizan, “pobreziaren belaunaldiz belaunaldiko transmisinoaren zikloa apurtzeko helburuagaz”, horretarako be beharrezkoa dan aurrekontu hornidurea jarritz mahai gainean”.

DIRU-LAGUNTZETARAKO ESPARRU JURIDIKO BARRIA 2018KO LEHENENGO HIRUHILEKOAN

Horrez gain, Batzarretako hiru taldeen –EAJ-PNV, PSE-EE eta Podemos- arteko beste akordio bati esker, aho batez onartu ahal izan da Aldundiari, Foru Administrazioak emondako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen dauen Foru Arauaren Garapenerako egungo Dekretua gizarte eta ingurumen arloko klausulen inguruan onetsi diran erespideetara eta beste politika publiko batzuetara “egokitzea” eskatzen deutson zuzenketa-eske transakzionala.

Sail bakotxak bere dekretuetan aurrera eroan behar dituan erespide horreek “bat etorriko dira erabilgarritasun publikoko jardueren, gizarte arloko interesen edo helburu publiko baten sustapenagaz”. Onetsi dan testuak jasoten dauenez, diru-laguntzen gaur egungo esparru juridikoaren eguneratzea 2018ko lehenengo hiru hilekorako egon beharko da indarrean.

PLAN INTEGRALA ENKARTERRIRAKO



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Podemos Bizkaiak eskatuta, osokoak “Enkarterrirako garapen ekonomikorako eta industrialerako plan integrala eta denporan iraunkorra” prestetea eskatu deutso Aldundiari, gainerako erakundeakaz lankidetzan “Bizkaiko gizarte eta lurralde arloko kohesinoan aurrera egiteko eta eskualdeko industria jarduera bultzatzeko helburuz”.

Osokoen aretoan egon diran 49 batzarkideen aldeko botoa jaso dauen mozinoan, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaerea egiten deutes Aldundiari, “CEL taldearen bideragarritasuna bermatzeko emon beharreko pausuak emon daizan, lanpostu guztiei eta taldearen etorkizunari eustea bermatuz”.

ONETSI EZ DIRAN PROPOSAMENAK

Beste alde batetik, osokoak ez dau onartu Bizkaiko Zergen Arau Orokorren aldaketea kontuan izatea, zerga zordunen zerrendak argitaratzeari jagokona. EH Bildu izan da Podemos Bizkaiak planteau dauen ekimenaren alde agertu dan bakarra. Helburua, Foru Ogasunak, 250.000 eurotik gorako zorrak dituen zordunen –fisikoen edo juridikoen– zerrendak argitaratzea zan, eta ez zorra milioi bat eurotik gorakoa daben pertsonena bakarrik, une honetan indarrean dagon arauan adierazoten dan moduan. Ekimenak EAJ-PNVren, PSE-EEren eta talde Mistoaren ezezkoa eta PPren abstentzinoa jaso ditu.

Gainera, osokoak ez dau onetsi, kontrako 28 botogaz (EAJ-PNV eta PSE-EE), aldeko 18gaz (EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Mistoa) eta 3 abstentzinogaz (PP), EH Bilduren mozinoa. Bertan, eskaria egiten jakon Aldundiari, nagusientzako egoitza publikoetan Bizkaiak “gitxienez”, “%2,43ko” estaldura mailea izan daian, EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasoten dan ehunekoa, hain zuzen be. Koalizino abertzaleak, estaldura hori bete egiten dala bermatuko dauen egoitzen arloko lanaren plangintzea aurkeztea eskatu dau. Talde aurkezleak ez ditu EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek aurkeztutako zuzenketa-eskeak onartu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
18/10/2017

La Diputación ha cumplido ya el "70%" de las proposiciones no de norma aprobadas en los dos últimos años por las Juntas Generales de Bizkaia

La Diputación ha presentado hoy en el pleno de Juntas Generales de Bizkaia celebrado en Gernika el informe sobre el grado de cumplimiento de las proposiciones no de normas aprobadas en la Cámara vizcaína durante los dos últimos cursos parlamentarios. El Gobierno foral ha cumplido con éxito el "70%" de las "89 proposiciones no de norma" acordadas en el parlamento territorial entre el 1 de septiembre de 2015 y el 1 de septiembre de 2017. El ejecutivo foral ha cerrado satisfactoriamente "62" iniciativas de los grupos junteros, mientras que "27" se encuentran en un grado de ejecución "avanzado", según los datos ofrecidos por la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea.

En realidad, las Juntas Generales han aprobado en este último bienio 128 proposiciones no de norma, aunque fueron 89 (un 70%) las iniciativas que afectaban directamente al trabajo que desarrolla el Gobierno foral, según el informe hecho público esta mañana en la Cámara en base a la aplicación del Reglamento. El resto de mandatos aprobados en comisión o pleno -39- iban dirigidas a otras administraciones o instituciones públicas.

Bengoetxea ha trasladado a los grupos junteros el estado de las proposiciones que afectaban directamente al Ejecutivo foral. Por departamentos, el área de Euskera y Cultura se ha hecho cargo del mayor número de iniciativas parlamentarias. Un total de 29 proposiciones instaban al área dirigida por Lorea Bilbao a desarrollar alguna acción de gobierno. Por su parte, los departamentos de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, y Desarrollo Económico y Territorial, recogieron 20 y 18 mandatos, respectivamente.

Por debajo de la decena de iniciativas se ha quedado el resto de áreas del Ejecutivo foral: Sostenibilidad y Medio Natural, recogieron 6; Empleo, Inserción Social e Igualdad, otras 6; Acción Social y el área de Administración Pública, se quedaron con 4 cada una. Cierra el listado el departamento de Hacienda y Finanzas que sólo recibió 2 proposiciones no de norma. (VER CONTENIDO EN EL INFORME ADJUNTO)

Los dos grupos que apoyan al Gobierno foral -PNV y PSE-EE- han destacado que el nuevo reglamento de las Juntas obliga al Ejecutivo a "hacer un ejercicio de rendición de cuentas" sobre el cumplimiento de las iniciativas que emanan de la Cámara, lo que "nunca" se había hecho hasta esta X legislatura, según el socialista Juan Otermin. Para la jeltzale María Presa, pese a que las iniciativas no de norma no son de obligado cumplimiento, "es justo que se tengan en cuenta". Su grupo está "altamente satisfecho" con el "respeto" que ha demostrado la Diputación ante las decisiones emanadas del Parlamento vizcaíno.

Desde la oposición, Arturo Aldecoa (Mixto) ha destacado la "utilidad" del informe presentado, el segundo de la legislatura, y Jesús Isasi (PP) ha subrayado que el documento refleja dos cosas: que la oposición "trabaja" y que el equipo de Gobierno "va a rebufo" de la labor de los grupos junteros.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En el turno de intervención de los grupos, la portavoz de Podemos, Neskutz Rodríguez, ha echado en falta en el informe el estado actual de las proposiciones no de norma dirigidas a otras instituciones, y la representante de EH Bildu, Onintze Oleaga, ha criticado la labor de la Cámara por aprobarse “humo”. La sociedad vizcaína necesita, según ella, “compromisos” en materia de “políticas sociales, fiscalidad y política industrial”.

RATIFICACIÓN DE LA BAJADA DEL IVA A LOS ESPECTÁCULOS CULTURALES EN VIVO

A continuación, el pleno ha ratificado, con el apoyo de PNV, PSE-EE, PP y grupo Mixto, y la abstención de EH Bildu y Podemos Bizkaia, el Decreto Foral Normativo 4/2017, de 26 de septiembre, por el que se modifica la Norma Foral 7/1994 del Impuesto sobre el Valor Añadido. Al igual de lo que sucede en territorio común, se minora el tipo impositivo aplicable a los espectáculos culturales en vivo y a las monturas de gafas graduadas, entre otros elementos, que han pasado ya a tributar al 10 por ciento desde que entró en vigor la Ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017 que traía estas modificaciones.

COMPROMISO PARA REDUCIR LAS TASAS DE POBREZA

Por otro lado, el pleno ha dado el visto bueno por unanimidad a una moción acordada entre Podemos Bizkaia, PNV y PSE-EE para que la Diputación realice un "diagnóstico específico" sobre el colectivo de personas en situación de pobreza en Bizkaia.

En un segundo punto, enmendado por nacionalistas y jeltzales, las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a que participe activamente en el Plan de Inclusión 2017-2020 del Gobierno Vasco, así como “a la puesta en marcha de todas aquellas acciones en las que la Diputación sea competente, estableciendo dotación presupuestaria suficiente para su desarrollo”.

Por último, la Cámara vizcaína insta al Ejecutivo vasco a incorporar al Plan de Inclusión una estrategia específica en relación con los hogares en situación de pobreza con menores de 14 años, y a la Diputación, a la puesta en marcha de aquellas acciones e intervenciones comunitarias que de él se deriven, “con el objetivo de romper el ciclo de transmisión intergeneracional de la pobreza”, estableciendo también dotación presupuestaria suficiente.

NUEVO MARCO JURÍDICO PARA LAS SUBVENCIONES EN EL PRIMER TRIMESTRE DE 2018

Asimismo, un nuevo acuerdo entre los tres grupos junteros – PNV, PSE-EE y Podemos- ha permitido sacar adelante por unanimidad una enmienda transaccional que insta a la Diputación a “adaptar” el actual Decreto de Desarrollo de la Norma Foral que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración foral, a aquellos criterios aprobados sobre cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas.

Estos criterios que deberán ser desarrollados por los diferentes departamentos en sus respectivos decretos, serán "acordes al fomento de actividades de utilidad pública, de interés social o de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

promoción de una finalidad pública". El texto aprobado establece que la actualización del actual marco jurídico de subvenciones deberá de estar vigente para el primer trimestre del 2018.

PLAN INTEGRAL PARA ENKARTERRI

A propuesta de Podemos Bizkaia, el pleno ha acordado también instar a la Diputación a elaborar, en coordinación con el conjunto de instituciones "un plan integral y sostenible en el tiempo de desarrollo económico e industrial para Enkarterri con el objetivo de avanzar en la cohesión social y territorial de Bizkaia e impulso de la actividad industrial en la comarca".

En la moción, apoyada de nuevo por los 49 apoderados y apoderadas presentes en el salón de plenos, las Juntas Generales de Bizkaia piden a la Diputación que "de los pasos necesarios para garantizar la viabilidad del grupo CEL, asegurando el mantenimiento de todos los empleos y el futuro del grupo".

INICIATIVAS RECHAZADAS

Por su parte, el pleno ha dado la espalda a una toma en consideración para modificar la Norma General Tributaria de Bizkaia en lo referente a la publicación del listado de morosos tributarios. Sólo EH Bildu ha apoyado la iniciativa que planteaba Podemos Bizkaia y que tenía por objeto que la Hacienda foral hiciera público un listado de personas -físicas o jurídicas- con deudas pendientes desde los 250.000 euros, y no a partir de un millón de euros como rige en la norma actual. La iniciativa ha contado con el rechazo de PNV, PSE-EE y Mixto, y la abstención del PP.

Asimismo, el pleno ha desestimado por 28 votos en contra (PNV y PSE-EE), 18 a favor (EH Bildu, Podemos Bizkaia y Mixto) y 3 abstenciones (PP) una moción de EH Bildu que instaba a la Diputación a garantizar "como mínimo" un nivel de cobertura del "2,43%" en residencias públicas para mayores, porcentaje que recoge el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV. La coalición abertzale pedía la presentación de una planificación de trabajo en materia de residencias que garantice el cumplimiento de esta cobertura. El grupo proponente no ha aceptado las enmiendas presentadas por PNV, PSE-EE y PP.